

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO.—*Mystagintza zaharra* (Belatzen baratza saila). Haranburu-Editor, S.A. Donostia, 1982.

Parados deritzan lehen kapitulua otoitz-Koroaren antzerako kantaldiz hasten da, eleberriaren egitura polifonikoa eta poliritmikoa girotzeko nonbait. Baina, gertakariok Florentzia aldera jotzen dute eta han, oraina *Quattrocentoko* giroarekin nahasian aurkezten du egileak.

Bertako era majikoek irakurlea tiratzekoak dira, misterio kutsuzko tirria sortzen bait du. Baina, lastima da egile berberak gazteleraz erabiltzen duen hizkuntz era ulerkorren arauak euskaraz ez betetzea, zeren aintzinakoa klasikoe-tarik zerbait jakin beharrez gainera eleberriko zenbait parte bizpahiru aldiz irakurri beharrezkoak dira haria jarraituz ulertuko bada, edo lehenagoko zerbaiti oratuz anitz aldiz uneak etenez jarraitu behar. Hala ere, seigarren zenbaki hontan, poemak besteetan bezala izkutuzko misterioak barna garamatza, zerbait erakutsiko ez erakutsiko, irakurleagan interesa sortzen duelarik, baina gutunak entelegarriagoak dira. Eta, hala hola helduko gara laberintoetan zehar, polifonia eta poliritmiazko eleberriaren hondarrera, azken lerroetan Belatzen baratzeko argibidetzat existentzialismo kutsudun honako esaldi hau agertuz: «Bakharrik goitituko dira' Uranora goititzekotz Pneumatozko hegaladak dituztenak». Eta, behar bada hor dago literaturgintza honen giltza ere.

J. S. M.